

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Berrobi



Aurkibidea

Udalerria: Berrobi

Sarrera



Lurrez, Gipuzkoako txikienetakoa da: 3 km² eskas. Bi mendien artean ("Erroizpe" edo "Lartemendi" eta "Langa") zabaltzen den gunetxoa da. Errepidez, 1,5 km-ko ibilbidea duen gunea da. Belauntza, Berastegi eta Ibarrekin egiten du muga. Nekazal giroko herria izan da beti, nahiz eta orain biztanleen gehiengoa ez den nekazaritzaz bizi. Industria aldetik aipagarria da Berrobiko SARRIO paper-lantoki ezaguna.

- **Biztanleak:** 581
- **Euskaldunak:** %80,93

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **7**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **77**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **58**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Simon Lorenzo Dorronsoro Goikoetxea (1919-2015)



Ama Leaburukoa zuen, eta aita, berriz, belauntzarra, baina, Berrobin jaio zen "Lontxo", Aranburu baserrian, sei senideko familian. Hamazazpi urterekin eraman zuten soldadu. Melillan ere izan zen. Hiru urte egin zituen etxera itzuli gabe. Handik itzuli eta obran hasi zen lanean, baina berriz ere bi urterako deitu zuten, eta Gasteizera joan zen atzera soldadu gisa. Handik Errusiara ere eraman nahi izan zuten, eta bere izena soldadu boluntarioen zerrendan jarri ere bai, bere gogoz kontra. Zorionez alde batera utzi zuen Francok alemanei laguntzeko asmoa, eta han bukatu zen Lontxoren soldadu bizitza. Baserriaren martxa hartu zuen orduan. Piedad Lopezekin ezkondu zen, eta Berrobin bizi izan dira biak azken urteetan.

Txomin Garmendia Galarza (1934-2022)



Berrobiko Tontolabekoa baserrian jaioa, lanbide askotan jardundakoa da Txomin Garmendia: nekazari, arotz, taxista, liburu-saltzaile, bertsolari... Berrobiko alkate ere izana da. 1980an istripu batean min hartu eta idazteari ekin zion (bertso-liburuak eta kontakizunak gehienbat).

Juanita Gorria Arozena *Juanitatxo* (1933)



Nafarrak zituen gurasoak, Enrique Gorria eta Maxima Arozena. Berrobiko udaletxeko etxebizitzan jaio zen, Muñagorri etxean bizi zen ondoren eta handik Elduaien paper-lantegian bizi izan zen. Gainontzeko zazpi senideak bezala, ordea, Berrobin egiten zuen bizimodua. Gazteenetakoa izanik, eskolara joateko aukera izan zuen eta oso gustura joaten zen gainera. Askotan, irakasle lanak ere egiten zituen, ederki hitz egiten baitzuen gurasoengandik ikasitako gaztelera. Inguruko baserritarrei enkarguak eginez, gustura pasa zuen gazte denbora. Anoetako [Jose Agustin Amonarriz](#)ekin ezkondu zenean, Tolosako Kale Nagusira joan zen bizitzera. Bi seme-alaba izan ditu eta ikaragarri gustatzen zaio dantza egitea, Xabier Leteren kantuekin batez ere.

Brigida Insausti Amorena (1928)



Brigida Insausti Berrobiko Arbide baserri dotorean jaio zen. Klean dago etxea, udaletxeko plazatik bertan, eta gutxienez XVI. mendeko leiho bat mantendu du gaur arte. Gerra hasi zenean zortzi urte zituen, baina gogoan ditu orduko kontuak, etxean bertan jaten eman izan baitzieten Nafarroatik etorritako soldaduei, Tolosara sartzeko prestatu bitartean. Jaiotetxera ezkondu zen, Martin Iturrizarekin, eta bertan bizi izan dira biak.

Lorenzo Irazusta Bereziartua (1922)



Berrobiko Alonso baserrian jaioa. Astigarragan morroi ibili zen oso gazterik, eta handik Zaragueta fabrikara joan zen lanera. Handik Elduaien paper lantegira joan zen atzera, eta han hogeita hamar urte egin zituen lanean. Ondoren, ordea, Berrobin aguazila behar zela eta, bera hasi zen lan horretan, eta handik hartu zuen erretiroa.

Martin Iturriza Irazusta (1922)



Berrobiko Seskea baserrian jaio zen Martin. Beti bizi izan da Berrobin eta ondo daki herriko kontuen berri. Gerra hasi zenean hamalau urte zeuzkan, eta orduko kontuak ere ondo gogoan ditu. Hogeita hamasei hilabete egin zituen soldadu, eta Afrikan ere izan zen (Melillan). Arbide baserriko Brigida Insaustirekin ezkondu zen. Senar-emazteak Berrobin bertan bizi izan dira azken urteetan.

Maria Piedad Lopez Ferrera (1926)



Donostian jaio zen, baina Berrobin hazia da. Bataiatu Donostiako San Inazion egin bazuten ere, elizara sartzea Berrobin bertan egin zuen. Arbide etxean hazi zen, bost senideko familian. Amona ere beraiekin bizi zuten. Gerra hasi zenean hamar urte betetzeko zituen, baina ondo gogoan ditu Nafarroa aldetik etorritako soldaduek Tolosa hartzeko zain emaniko egunak. Simon Lorenzo Dorronsorekin ezkondu zen eta Berrobiko kale-etxe batean bizi izan dira senar-emazteak azken urte hauetan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Biografia

- **Hizlaria(k):** Garmendia Galarza, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** BRB-001/001
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Txomin Garmendia Galarza Berrobin jaio zen 1934eko otsailaren 3an, Tontolabekoa baserrian. Baserria orain deseginda dago. Baserri zaharra zen, eta maizterrak ziren.

Transkripzioa

- Beno, ba, lenengo zure izen-abizenak esaten badizkiazu ta nungua zean ta.
- Uain segitu in behar det.
- Bai, zuk esan e.
- Ba, nere izen-abizenak: Txomin Garmendia Galarza. Eta Berrobin jaioa, milla beatzirehun ta hogeta hamalau garren urtean, otsailan hiruan, eta hain zuzen, ba, aurtan hirurogeita hamabost urte. Eta hortik aurrea hemen gabiltze.
- Ze baserritakoa zea zu, Berrobikoa?

- Ba ni Tontolabehekoa. Batzuk Tontolabehera, bestek Tontolazpikoa... Bi Tontola die ta bat da goie, ta gurea zan behekoa. Hau da, batzuk "azpikoa", bestek "behekoa", baiño garbi dao, Euskal Herrian, ba, bi baserri izen berekok dienen, beti izaten da goikoa eta behekoa, jakiñe. Eo baita're zaharra edo berrie, jakiñe. Ta gurentzako ez zan gaizki etorriko "zaharra" re, zaharra da ta; eo zan ta, uain deseginda dao.

- Bai o?

- Bai.

- Zer zan baserri haundiya?

- Ez, bea basarri oso txikie zan, baiño aldamenean bagendun beste basarri moduko bat, bere terrenoakin, ta haiekintxe pixkat moldatzen giñen. Baiño gu bizi giñan baserrie, maiztarrak giñan, eta oso basarri zaharra zan, ta han ez zeon irauteik. Eta [ahal eiñ guztie] iraun genduan, baiña, azkenen eroitzeko moduan jarri zan, eta udaletxeko baimenakin ta abar, uain, ba, kendue dao, tapatue dao.

2. Politika

2.1. Baserrian, lan asko eta diru gutxi

- **Hizlaria(k):** Garmendia Galarza, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** BRB-001/002
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:01:42. **Bukatu:** 00:04:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
Baserria » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak
- **Laburpena:** Bost senidetan zaharrena da, baina orain bi bakarrik bizi dira. Baserriko bizimodua oso gogorra zen. Etxean abereak zituzten. Garia ere egiten zuten. Lana asko egin eta gutxi irabazten zuten. Gaur kexatu egiten gara, baina bizimodu latza ordukoa zen. Hala ere, baserrietan gerraostean ez zuten goserik pasa.

Transkripzioa

- Zer ziñaten famili haundiya?

- Ba gu izan giñen bost senide, ta bat, laugarrena, jaio ta laister hil zan, gogoatzen naiz. Ta ni, zaharrena. Ta uain, lau bizittu giñan urte askuan, ta uain bi bakarrik bizi gea. Bat hil zan, hemen Urnietan, laneko istripuz, etxe bat eroita, ta bestea [kamerosetan] ehizen zeola. Uain bizi gea zaharrena ta gaztena, ni zaharrena ta gaztena lbarran bizi dana.

- Ta etxian ze, ze bizimodu izaten zan garai hartan?

- Etxean, etxean, ba, ni zaharrena nitzen, maiorazkoa, esaten dan bezela. Eta, badakizu, baserriko bizimodue garai hartan oso gogorra: lau behi, bost behi, lau txekor, eta hortik kanpoa, ba, oillo mordo bat, txerri bat urteako gizentzeko eta horrela, artoa ta babarruna, garie, [...] kosetxak, eta lana galanki eta irabazi gutxi.

- Bai, ezta? lan gogorra.

- Gaur baserritarrak keja die, arrozoiakin, esnearen prezioa eta haragiana ta abar ta abar. Urdun dirue gaur baiño gehio itten zun esneak eta haragiak, konformaziokoa, baiña gutxi izaten zan, lau behiekin... ta behiek in behar zuen uztarrin! Ta uztarria itten dun ganaduak esne gutxi ematen du. Eta, ba, urduko basarritarra bizi zan, ba, hirugarren munduan bezela: bi

orduko bidean garotaa-ta ganadukin. Gaur hoi sinisteik ez dao. Ta beti lanak in eziñik. Eta morroia ta neskamea pagatzeko komeriak. Eta, ba, ba... Gaur jendea keja da arrozoiakin, baiño urdun zan jendea bizimodu latzean. Eta gerra ondoren hartan zan, ba, gosea. Ta basarritarrak bentaja hoixe izan gendun: gerra ondoren hartan basarrin ez gendula goserik; taloa, esnea, ta babarruna ta patata baziela nahikoa, ta horri eskerrak. Kalean ez zan holakorik eta gorriak pasa izango zittuzten, kaleko kontuak entzuten dittugunez. Baiña, gaiñantzen, holakoxe bizimodua izan da gurea.

3. Aisia

3.1. Euskararekiko zaletasuna

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Galarza, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: BRB-001/005
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:08:00. **Bukatu**: 00:09:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Kultura » Bertsolaritza
 - Aisia » Kultura » Irakurtzea
 - Euskara » Euskararekiko sentimendua
- **Laburpena**: Arantzazuko egutegia etxean edukitzen zuten, eta gustu handiz irakurtzen zuen egunero, euskaraz zelako. Arantzazuko aldizkaria ere jasotzen zuten. Bertsoak gustatzen zitzaizkion. Txirritaren testamentua deituriko liburuxka bat eduki zuen. Zaletasun handia zuen.

Transkripzioa

- Ta zuri, zu Berrobin jaio, baserrin eon, ta nola etorri zitzaizun zuri irakurri, idatzi...?

- Bai, nik, irakurtzeko zaletasuna ikuskarrie izan det beti. Gogoatzen naiz noiz sortu zan Arantzazuko egutegi edo kalendarioa euskeraz, eta hue zan nere poza, egune etorri zai, hari orrialde bat kentzeko ta irakurtzeko euskeraz. Gero hasi zan gure etxean Arantzazuko errebista, hilerio, ta han ´e orrialde bat o beste etortzen zan euskeraz. Eta `Basarri´ren berso batzuk´e bai, eta bazan beste bersolari bat, ezautu nun nik justu-justu, aiton bat Arantzazun, Graziano, Anduagako Graziano. Bersok jartzen ez zan txarra. Ta haren berso batzuk etortzen zien, orrialde... bono, hillero ez, baiño orrialde batzutan. Ta haiekintxe nere gustoa, pozik izaten nintzen ni, haiek, haiek... hue gozamina! Nik rebiste hoi hartu ta hango euskerazko lanak irakurri arte ez nun rebista hoi uzten. Nik... ta esaten badizut, bertso paperak, berriz, han ta hemen aitte zanak peritik ekarrita. Ni entzunda nao... bazan liburu txiki bat `Txirritan Testamentue´, ta nik eskuatu nunen illuntze batean, ez dakit nundik, gure aitte zanak ekarri zun nunbaittetiken edo, eta eskutan `Txirritan Testamentu´ liburuxka hori nula jun nitzen behiek jeztea! Ta behiek jetzi ta liburue irakurri, txandaka. Behiek jetzi eta afaldu arteko betarik ere ez, liburu huaxe jan in behar. Ikuskarrie zan ne, nere zaletsune. Gehio´re izango zien, ta bersolari danak seguru asko zaletasun hoi, baiño ni baiño gehio ez dao izateik, nik nun baiño gehiago.

3.2. Bertsolarien gaiak gobernuak jartzen zituen

- **Hizlaria(k):** Garmendia Galarza, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** BRB-001/012
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:25:43. **Bukatu:** 00:27:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kultura » Bertsolaritza
 - Politika » Euskara eta politika
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Garai batean bertsolaritzan politika asko sartzen zen, eta, hori eragozteko, Espainiako gobernuak gaiak jartzen hasi zen. Zigorrik ez diote inoiz jarri, baina larrialdiak pasa ditu abestutakoarengatik. Lazkao Txikirekin gertatutako pasadizoa.

Transkripzioa

- Ta gaiak eta, zeri buruz kantatzen zenuten ordun?
- Ba, gaiak, gaiak... izan zan garai bat, gaiekin ta politikan-ta jendea nabarmendu zana ta gobernoa hasi zana kargu hartzen ta gora-behera, eta herri batean bertsolarik jarri behar balin bazien, ba, antolatzaile hoik gobernoa pasa behar zuten ze gai izango zien. Eta nola garai hartan Urtain zana zeon modan oso, ba, kontue papera betetzetiken, baiño Urtain izango zala gaie kantatzeko ta... Gero beste milla gai erabiliko zien, baiño behintzat papera betetzeko gobernoantzako hola ibiltzen zan garai baten antolaitzailea.
- Eta zigorrak eta?
- Ez, nik ez det izan zigorrik. Badie zigorrak izandakoak. Larri ibilita nao bai ni're o estuasun bat pasata nao. E, hain zuzen, Orixe zanan omenajea zan Orexan. Ta ez dakit nabarmenkerin batzuk-o kantatu izango giñuzen gobernoan kontra eo zerbaitte hola, edo Euskal Herrin alde, eta hurrungo egunen apaiza etorri [zaianen], herriko apaiza, etxea, ba, guardia zibillak etorriko ziela nere bille o kargu hartzea eo, Orexako gorabeherangatik. Ta ni "ze pasako ote da, ze pasako ote da oain?", ez zan iñor azaldu. Eta holako beste estuasun bat o beste izan zittekeen nunbaitte, baiño ez, holako gauza haundiik ez. Gogoatzen naiz Lazkao Txiki zana ta biok Basauria eo horko Bilbo inguruko herri batea jun giñen. Ta zaben... jaialdie zan, bertsolari jaialdie zan zine-etxe baten, ba, huelgan zaren jende batzuri laguntzeko. Baiño jaialdi hori jarri zan baimenik gabe, ikusten danez. Ta gogoatzen naiz ate nausitik sartu giñen zine hortara, baiño atzeko atetiken, kontrabandon bezela, nola ihes ein genduan, nola esan ziguten. Baiño hala bukatu zan.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Gerra garaia Berrobin (BRB-001/003)

Gerra garaian, nazionalek kapital bat hartzen zutenean, herriko kanpaiak jotzen zituztela gogoan du. Bilbo hartu zutenean, Berrobin kanpaiak jo zituzten. Berrobin bi mutil hil ziren gerra garaian. Gerratik itzultakoek zorriak ekartzen zituzten. Lan gutxi zegoen. Gorriak pasa zituztela kontatzen zuten.

2. Gerra denboran, abertzaleek gaizki pasa zuten (BRB-001/004)

Gerra ondoren, kontu handiz hitz egiten zen. Etxean Argia aldizkaria jasotzen zuten, eta hori gaizki ikusia zegoen. Batek baino gehiagok alde egin zuten herritik. Abertzale zirenek gaizki pasa zuten. Ilea moztutakoak ezagutu zituen.

3. Eskola Berrobin, Elduan eta Ibarren (BRB-001/006)

Berrobiko eskolan denbora gutxi pasa zuen. Elduako auzoan beste eskola bat zegoen, eta hara joaten ziren. Ibarren ere eskola partikularrera joaten ziren arratsaldero. Komunio handia eta gero utzi zuen eskola. Berrobiko apaizak umeak eskolara bidaltzeko gomendatzen zuen beti.

4. Txominen gurasoentzat eskola izatea oso garrantzitsua zen (BRB-001/007)

Gurasoek eskola bidaltzeko gogoaz bazuten, garrantzia ematen zioten. Erdaraz ikastea ere baliotsua zela uste zuten.

5. Lan askotatik pasa da (BRB-001/009)

Lan askotatik pasa da. Kanposantuan lana egin du, alkate bezala ere bai. Baserritik kanpo lehen pausoak arotz bezala eman zituen. Anaiaren aroztegiari lana egiten zuen. Hasieran etxeetako ateak egiten zituzten. Ate sinpleak izaten ziren, oso arinak. Mandrilak egiten ere ibili zen.

6. Taxi gidaria izan zen urtebetez (BRB-001/010)

Elbarritu ondoren lana aldatu behar izan zuen. Taxi gidari bezala urtebete egin zuen, kotxe berriko zergak ez ordaintzeko. Egun haietako pasadizoak kontatzen ditu.

7. Bertsotan herriz herri (BRB-001/011)

Egunkarietan idazten hasi zen. Bertso liburuak ere idatzi zituen. Bertsolari bezala herriz herri ibili zen; Gipuzkoako herri gehienetan abestu du. Garai batean bertsotara egun osorako joaten ziren. Gaur egun, berriz, plazako saioa bukatu ondoren lana bukatzen da. Jendea gustura utzi behar izaten zen, eta horretarako asko abestu behar izaten zen.

8. Kartzelan sartu zuten armadari buruzko bertsoak idazteagatik (BRB-001/013)

Soldaduskako bertsoak egitea gustatu zaio. Haietako bertso batzuk lizentziatu ondoren kintoen bazkari batera eraman zituen, eta Arantzazuko fraideen inprentara iritsi ziren; beraien aldizkarian argitaratu zituzten. Norbaitek parte eman zuen, eta horren ondorioz kartzelan sartu zuten.

9. Berrobin baltsean ibiltzen ziren plazan (BRB-001/016)

Berrobin berezitasun bat zegoen garai batean: inguruko herrietan ez bezala, Berrobin baltsean dantza egiten zuten festetan. Apaizak protestatzen zuen, baina hala ere mantendu egin zen. Beste herrietan taberna barruan bakarrik egiten zuten baltsean dantza.

10. Mutilak neskak baino libreago ibiltzen ziren (BRB-001/017)

Esaera zaharrak dio: "Izarrak irtetea, bego neskatxa etxean". Neskak apaizaren beldur eta gurasoen beldur ziren. Fama txarra berehala hartzen zuten. Mutilak libreago ibiltzen ziren.

11. Bertsolari famatuekin kantuan (BRB-001/018)

Txomin parrandazalea izan da. Tabernan bertsotan ibiltzea gustatzen zitzaion. Uztapide eta Lasarte bertsolariekin ibili zen. Lehen aldiz Uztapiderekin abestu zuen eguna gogoratzen du. Afalostean askotan bertsoak eskatzen zizkioten.

12. Elduainen afaria Berastegitik bueltan (BRB-001/021)

Berastegitik bueltan Elduainen askotan afaltzen zuten. Afaria hogeita lau pezeta kostatzen zitzaien. Afaltzeko arrain-zopa, tortilla edo txuleta eta postrea jaten zituzten.

13. Garai bateko neskek bertsoak ez zituzten gustuko (BRB-001/023)

Bertsoak eta gero neskatan ibiltzeko aukera asko ez zuten izaten, garai hartan neskei bertsoak ez zitzaizkielako gustatzen. Gaur neskek ere zaletasuna badute. Neskek dantza nahiago zuten bertsoak baino.

14. Bertsolaritza liburuak saltzen ibili da (BRB-001/025)

Azken urteetan bertsoen inguruko liburuak saltzen ibili da, Sendoa argitaletxearekin.

15. Berrobiko alkatea izan da hiru legealditan (BRB-001/026)

Franco hil ondoren alkate aukeratu zuten. Hiru legealdi osatu zituen. Gogotsu hasi zen baina bukaerarako nekatu ere egin zen. Alde onak jendea ezagutzea eta jendearekin harremanak izan dira; txarrak berriz, haserreak. Lan handia egin zen Berrobin, eta inguruko herrietan ere bai. Gauzak asko hobetu dira.

16. Beste bertsolariekin izandako harremana (BRB-001/028)

Bertsotan herriz herri ibili denetan gehienetan pozik itzuli da. Lagunekin ere beti ongi konpondu da. Bertsolari guztiak lagunak dituela pentsatzen du, baina harreman hoberena Etxeberriarekin izan du. Berarekin ibilitako beste bertsolariak aipatzen ditu.

17. Idatzi dituen liburuak (BRB-001/029)

Txominen bertsoen inguruan liburu bat argitaratu behar dute. Bost liburu ditu idatziak. Iñaki Linazasororekin ere liburu bat argitaratu zuen. Liburu hura nola sortu zuten kontatzen du. Bi nobela argitaratu ditu.

18. Bertsolaritzan gauzak asko aldatu dira (BRB-001/031)

Gaur egungo bertsolari gazteak beste modu batean aritzen dira. Beste hizkera bat erabiltzen da. Orain poto gutxiago egiten dira.

19. Herriko eskolan erdaraz ikasten zuten (BRB-002/002)

Eskolara gutxi joan ziren. Zazpi urte zituztela hasten ziren eskolan eta gutxitan joaten ziren. Maistra Iruñeko neskazahar bat zen, euskaraz ez zekiena. Eskolan makilarekin jotzen zuten. Lotsatuta ibiltzen ziren eskolan erdaraz ez zutelako ulertzen.

20. Egunez etxean lanean eta gauez eskolara (BRB-002/003)

13 urte zituela gerra hasi zen eta etxean gelditu zen. Udaberrian laiarekin lurra jiratzen ibiltzen ziren patata jartzeko. Ganadua aldatzen ere ibiltzen ziren. Etxean lan asko zegoelako ezin izaten zuten eskolara joan. Geroago gau-eskolan ibili zen, aberats batek utzitako diruarekin jarri zuten gau-eskolan, eta han ikasi zuen batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak egiten. Gau-eskolan apaiza zen maisua eta euskaraz erakusten zien.

21. Senide bat hiltzen zenean ordezeko umea ekartzen zuten (BRB-002/004)

Brigida 1928an jaio zen. Bost senide ziren eta bat hiltzen zenean beste bat ekartzen zuten Fraisorotik (umezurtzen egoitzatik). Bere ahizpa zaharrenak horregatik zituen abizen desberdinak. Ohikoa zen ordezeko umea ekartzea.

22. Txerriak zituzten baserrian (BRB-002/005)

Baserrian hiru behi eta txerri batzuk zituzten eta hartatik bizi ziren. Ukuiluan pertsonak bezain elegante izaten omen zituzten txerriak. Txerriak kumea izaten zuenean apartatuta egon behar izaten zuen. Txerri bati tripa josi behar izan zion, baina lotzea ahaztu egin omen zitzaion eta azkenean txerria hil egin zen.

23. Berrobiko eskolan umeak elkarri laguntzen (BRB-002/006)

Berrobiko eskolan neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Brigidak etxean gelditzea nahiago zuela dio. Handiek txikiei erakusten zieten eskolan.

24. Gerra hasiera Berrobin (BRB-002/007)

Gerra hasi zenean, Martin etxean egon zen aitari laguntzen. Martinek 14 urte zituen gerra hasi zenean. Kamioi koskor bat ibiltzen zen hiltegira txekorrak eramaten. Gerra hasi zenean, kamioi hura armatutako mutilez beterik eramaten zuten Berastegiko mugara. Inguruko mutilak izaten ziren. Nafarrak mendiz sartu ziren jai arratsalde batean, eta bertakoak gordetzen ibili ziren; baina soldaduek ez zieten kasu handirik egin. Soldaduek 18 egun pasa zituzten Tolosara sartu aurretik Izaskungo menditik tiroak eginez. Tolosa hartu zutenean, aurrera egin zuten.

25. Bonbarderoak pasatzen ziren gerrako lehen egunetan (BRB-002/008)

Berrobin ez zegoen kotxerik. Menditik etorritako soldaduei ura eman zieten baserrian; soldadu euskaldunak ziren, nafarrak. Arratsaldetan, ordu jakin

batean hiru abioi etortzen ziren bonbak botatzera. Bonbak Andoainen botatzen zituztela zioten.

26. Berrobiko lehenengo motoak eta kotxeak (BRB-002/009)

Amerikatik aberastuta etorritako batzuk berriro Amerikara itzuli behar izan zuten. Haiek ziren motoa zuten bakarrak. Etxean behiak omen zituzten. Lehengo kotxea Calparsoro fabrikakoek ekarri zuten. Beraiek artajorran zebiltzan bitartean hamaika t´erdietan kotxea pasatzen zen. Fabrikan bi kamio zahar ere bazituzten estaziotik pasta ekartzeko.

27. Gerra ondoren soldadu Melillan eta Zaragozan (BRB-002/010)

34 hilabete egon zen soldadu, Melillan eta gero Zaragozan. Euskaldun kuadrilla handia joan zen Melillara eta berak gazteleraz ez zekien ezer esaten; hala ere ez zuen arazorik izan. Donostiako bat kapitaina zen. Hogei urte zituen soldadu joan zenean eta gerra bukatuta zegoen.

28. Etxerako xaboia egiten zuen (BRB-002/012)

Soldaduak etxean izaten zituzten. Denbora dezente pasa zuten beraien etxe aurrean lo egiten eta jaten. Brigida neskame zegoen, eta han ikasi zuen grasarekin xaboia egiten. Miserian bizi ziren.

29. Basora lanera arbolak moztera (BRB-002/013)

Gerra denboran gaizki ibili ziren baina gero lana bazuten. Goizetik basora joaten ziren eta bertan eguna pasatzen zuten lanean. Fabriketan ikatzik gabe geratu zirenean, basoko egurra behar izaten zuten. Arbolak aizkorarekin eta trontzarekin botatzen zituzten. Arbola mota guztiak botatzen zituzten: gaztainondoak, pagoak... Menditik idiekin edo gurdiekin jaisten zituzten arbolak, lokatzez betetako bideetan barrena. Gero egurra fabrikara eramaten zuten. Ez zuten pentsatzen gaizki bizitzen zirenik.

30. Astotik erori ondoren Brigidaren ama hil egin zen (BRB-002/014)

Gerra garaian beldurra zuten. Brigidari 48 urteko ama hil zitzaion 11 urte zituenean. Goizean zazpi t´erdietan meza izaten zen eta eliza beterik egoten zen. Elizan zeudela norbait sartu zen Brigidaren amari gertatutakoa jakinarazteko: Tolosara esnea saltzera zihoala astotik erori eta hartutako kolpearen ondorioz hil zen. Hortzak atera zizkioten infekzioa handik zetorkiola pentsatuz. Etxean gaixo egon zen pasmo belarrak erabiliz eta Berrobin festetan zeudela hil zitzaien. Medikuak hil zuela pentsatzen zuten eta etxera berriro sartzea debekatu zioten. Pasmobelarra ez zion medikuak ematen, etxekoek baizik.

31. Heriotza, hiletak eta lutoa (BRB-002/015)

Brigidak bigarren komunioa egin behar zuen eta lutoagatik beltzez jantzi behar izan zuen. Pertsonak hil ondoren bederatziurrena ospatzen zen. Hiletak bi motatakoak izaten ziren: primerakoak, goizeko bederatzietan, eta segundakoak, hamaiketan. Katgoria handiko hiletetan apaiz guztiak aldarean jartzen ziren; segundako hiletetan, berriz, bazterrean. Hileta eta gero tabernan bazkaria eskaintzen zen. Mezak irauten zuen bitartean argizaiola pizten zuten norbait hiltzen zenean. Lutoak urtebete irauten zuen. Apaizak ere bazkarira joaten ziren, baina familiakoek ordaintzen zuten.

32. Jaiero mezetara joatera derrigortuta zeuden (BRB-002/018)

Jaiero mezetara joan behar izaten zuen; bestela, konfesatzerakoan esan behar zen eta esplikazio asko eman. Familia bakoitzak bere tokia zuen elizan. Norbait hiltzen zenean egur beltz bat jartzen zuten haren lekuan.

33. Guardia Zibilak Berrobin (BRB-002/019)

Soldaduak berehala eraman zituzten Berrobitik. Guardia Zibilak astean bi edo hiru aldiz etortzen ziren fusilak bizkarrean hartuta, eta errespetu handia zieten. Ikaratuta ibiltzen ziren. Ez zen kotxerik ikusten.

34. Fabrikara oinez edo bizikletaz (BRB-002/020)

Soldadutzatik etorrira, fabrikari lanean hasi zen eta oinez joaten zen. Askok bizikletaz joaten ziren fabrikara. Batek motoa ekarri zuenean denak harrituta gelditu ziren. Bizikletak ere asko ez ziren. Emakumeak ere bizikletan ibiltzen ziren. Linterna jartzen zioten bizikletari gauean ibili ahal izateko.

35. Gerraren amaiera kanpaien bidez ezagutu zuten (BRB-002/023)

Kanpaiak jo zituzten gerra bukatu zela jakinarazteko. Dena kanpaien bidez abisatzen zen. Heriotzak abisatzeko kanpaiak jotzen ziren.

36. Umea jaio ondoren elizara sartzea (BRB-002/024)

Umea jaio zenean zortzi egunetan etxetik atera gabe egon behar izaten zuten, teila jarrita. Gero elizara sartzea egiten zen. Umeak jaio eta laster bataiatu behar izaten ziren. Elizara sartzea egiterakoan apaizak merienda ematen zien. Apaizak bedeinkapena ematen zien elizaren sarreran.

37. Berrobi eta gerra I (BRB-003/004)

Gerra hasi zenekoa. Santio eguna zen herrira sartu zirenean. Auzoko bat Azkoitikoa zen, Olantxokoa; bi ume hartu eta joan egin zen. Leaburutik erasoak. San Jose. Soldaduak.

38. Berrobi eta gerra II (BRB-003/006)

Soldaduak behetik gora igo ziren; kapitaina Leaburun hil zen. Izaskundik bota zuten gorriek. Erreketek txapel gorriak eta apaiza. Hegazkina, ametrailatzen. Lasarten zegoen aireportua.

39. Berrobi eta gerra III (BRB-003/008)

Etxean, gerra garaian. Berastegitik ekartzen zieten ogia. Alde egiteko esan zieten. Bueltaka ibili ziren nafarrak. Baserrietan lotan; Arbiden egon zena zaurituta zegoen. Desfileak, kanpaiak jota. Gerra ondorena, tristea.

40. Tiro artean, larritasuna (BRB-003/010)

Goiko baserrikoak etorri ziren behin etxera. Aran bila joateko esan zion, baita joan ere, eta gero larri. Tiroak, Izaskundik. Beste behin perrexil bila bidali zuten, eta sustoa.

41. Gerraren eraginak: hildako soldaduak, tela falta, sakeoak (BRB-003/012)

Soldadu joan, eta hildakoak. Herrian mutil gutxi geratu ziren, neska denak batekin joaten ziren mendira. Gerra ondorena: batzuek zakuekin egiten zuten arropa. Durangotik ekartzen zuten tela. Sakeoak. Ihes egindako familiak.

42. Eskolan, Purificacion Jimenez maistrarekin (BRB-003/015)

Gerra garaian eskolan zebilen. Bandera nazionala, Cara al Sol. Maistra berak jarraitu zuen; Purificacion Jimenez. Oso dotorea ei zen: eraztuna, atzazalak pintatuta... Pobre hil zen. Zer ikasten zuten eskolan: katona. Pizarrak. Erdaraz. Zigorrak.

43. Ezinikusiak gerra sasoian (BRB-003/017)

Gerra garaian ezinikusiak ere baziren. Isunak ordaindu behar izan zituzten nazionalistek. Txaketari buelta eman ziotenak.

44. Gerra garaiko desfileak (BRB-003/020)

Margaritak eta pelaioak. Desfileak, errepidean; gramola jartzen zuen Jose Mari Gorriak. Zapatak mina egiten ziola, eta alde egin zuen desfiletik. Etxera bila joan zitzaizkion.

45. Gerra garaiko hilketak I (BRB-003/024)

Gorrotoak ere bazeuden gerra garaian. Bere ezagun baten semea, Txaramakoa, Elduainen dago lurperatuta; Tolosako batzuek hil zuten, inbidiengatik.

46. Gerra garaiko hilketak II (BRB-003/026)

Txaramakoaren kasua. Ez zuten nazionalista zelako hil, inbidiarengatik baizik. Berrobiko baserritar batzuek hiru gorpu topatu zituzten, Arrostegein orbelez estalita: maistra bat eta bi gizonezko. Berastegin ere hil zituzten batzuek.

47. Errazionamendua; lehengo luxuak (BRB-003/028)

Gerra ondoren, gosea. Errazionamenduko ilara, Tolosan; zain egon eta gero, irina bukatu zela, eta berriz joateko. Babarruna bazuten. Lehengo banketeak, festetakoak: oiloa hil.

48. Berrobiko festak eta Villabonakoak (BRB-003/029)

Berrobiko festak. Akordeoia. Dantza lotua libre zen. Villabonako festak. Bizikletan, tranbian, oinez. Tranbia nolakoa zen (Tolosa-Donostia). Bizikleta. Mendiz Leaburura.

49. Infernura kondenatuta, apaizak zioenez (BRB-003/031)

Berrobiko apaiza balkoian egoten zen, kontrolatzen. Kongregaziotik botatzen zuen jendea, dantza lotua egiteagatik. Infernura kondenatuta zeudela esaten zieten. Apaiza ere ez zen santua, neskamotz ederrarekin bizi zen.

50. Apaizaren jarrera; dotrina eta zigorrak (BRB-003/034)

Apaizaren esana bete beharrekoa. Herriko alkatea eta apaiza. "Ave María Purisima" esan behar, txapela altxata. Berorika. Kongregazioa. Zinta urdina. Dotrina jakin behar, txartela hartzeko. Apaizaren zigorrak: eliz-mutilak jo eta bataioetako dirua kendu ere bai.

51. Apaizari odolkiak, zapiak... denetik (BRB-003/035)

Apaizari ematen zitzaiona; txerria hiltzean, odolkiak. Bataioan, zapi zuria eta opila. Kandelak. Errekara bota zituzten kandela mordoa, eta mutikoak haiekin jolasean.

52. "Culto y credo" ordaindu beharrekoa (BRB-003/038)

"Culto y credo" ordaindu behar izaten zen, eta hori pagatu ez zuena elizakoak eman gabe hilobiratu izan dute. Errepublikara garaian jarri zuten hori.

53. Primerako eta segundako hiletak; kantu modukoa (BRB-003/041)

Hileta elizkizunetara Lazkaotik joaten ziren fraideak Berrobira, baina ez ziren bazkaltzen geratzen. Primerako hiletak eta segundakoak. Horrekin lotutako santu-esaera modukoa.

54. Apaizari bazkaria eman behar, hiletaren ondoren (BRB-003/043)

Apaizari zurruta gustatzen zitzaion. Hiletaren ondoren senideei eta apaizari bazkaria eman behar zitzaion tabernan, eta etxe denek ezin zuten. Koñaka. Hiletak arratsaldean egiten hasi ziren gero, apaiz berriarekin.

55. Lutoa eraman beharra (BRB-003/046)

Lutoa, denak beltzez jantzita eta zinta beltzekin. Soineko beltzarekin ezkondu zen. Urtebete edo. Arropa tindatuta.

56. Tiroak Berastegi inguruan (BRB-005/002)

Hamazazpi urte zituela, soldadu eraman zuten. Gerra hasi zenean, gorriak Urto inguruan zeuden. Lorenzo soroan zebilen lehen tiro-hotsak entzun zituztenean. Baserritik tropak nola jaisten ziren ikusten zuten. Gorriak tiroka hasi zitzaizkien behin.

57. Berrobin ogirik gabe zergatik gelditu ziren (BRB-005/004)

Nafarrak sartu zirenean, ogia Berastegitik ekartzen zuten. Baserri batekoek gorrientzako ogia eramaten zuten; eta, nazionalak konturatu zirenean, kendu eta handik aurrera Berrobin taloa jan behar izan zuten.

58. Anaiaren hiletan, falangistek gaizki jokatu zuten (BRB-005/006)

Anaia bat zaurituta etorri zitzaizen gerratik. 18 urte zituela, kinta deitu zuten. Anaia hil zenean, etxera itzuli zen. Anaia ekartzera joan behar izan zuten. Falangista batek "tiro de gracia" ematera etorritakoan, hiletan esandakoa gogoan du.

59. Hiru urte Afrikan eta Errusiara boluntario joateko eskaintza (BRB-005/007)

Anaia gerran hil ondoren denboraldi bat etxean pasa zuen. Gero Lizarran egon zen eta beranduago hiru urte Afrikan, II. Mundu Gerra garaian. Melillan egon zen hiru urte etxera itzuli gabe. Bueltatu ondoren Gasteizera bidali zuten eta handik Errusiara joateko eskaintza egin zioten.

60. Melillako baldintza gogorrak (BRB-005/010)

Melillan gosea pasa zuten. 83 kilo zituela joan eta 60 kilo zituen bueltan. Ahulak zeuden. Ilea moztzen zien zorriak zeudela eta. Egoera txarrean zeuden janariak jateagatik izandako arazoak.

61. Salaketa oker baten ondorioz, hiltzeko arriskuan egon ziren (BRB-005/012)

Nafarrak denbora askoan egon ziren inguruko mendietan. Goiko baserri batera joaten ziren janari bila, eta hango beheko baserrian (Simonen baserrian) gorriak bizi zirela salatu zuten. Baserriko mutilzaharrak gorriak hiltzeko eskatu zien Nafarrei; baina haiek ondoko etxean galdetu zuten, eta gorriak ez zirela jakin zuten. Galdera hari esker libratu ziren.

62. Gorri izateagatik zigortuak (BRB-005/013)

Berrobitik bost lagun Tolosara eraman zituzten, gorriak zirela esanez. Berrobiko idazkariak Tolosara deitu zuen; eta, haien alde hitz egin ondoren, askatzea lortu zuen. Askatu aurretik, "aceite de ricino" edanarazi zieten eta ilea moztuta ibili zituzten. Gauza horiek inbidiagatik gertatzen zirela iruditzen zaio.

63. Bizimodu gogorra mutil koskor batentzat (BRB-005/016)

Gerra joan aurretik baserrian lana egiten zuen. Mutil koskorra izan arren gizon handi baten lana egin behar izaten zuen. Gosea pasa zuten. Oroitzapen txarrak ditu. Gose hari esker gaur osasuna duela dio. Garai hartako bizimodu pobrea deskribatzen du.

64. Baserriko bizimodua (BRB-005/017)

Ama eta arreba Tolosara joaten ziren esnea saltzera. Baratzea ere bazutenez hango produktuak ere saltzen zituzten. Txerria ere hiltzen zuten. Txerria hiltzera kanpotik etortzen zitzaizkien. Behin txerria hil ondoren gertatutako pasadizoa gogoratzen du.

65. Goserik ez baina janari pobrea (BRB-005/018)

Goizean kafesnea eta taloa, eguerdian babarrunak urdaiarekin eta gaztainak. Hori zen ohiko janaria. Edateko sagardoa. Gabonetan zerbait berezia izaten zuten, kapoiak normalean. Festetan ere bazkaria hobe izaten zuten.

66. Iluntzerako etxera; inguruko herrietara irteera (BRB-005/019)

Gaztetan iluntzerako etxera bueltatu behar izaten zuten. Abisatzeko apaizak kanpaiak jotzen zituen. Soldaduska ondoren hasi zen pixka bat neska kontuetan. Ez ziren festetara asko joaten. Inguruko zein herrietara joaten ziren kontatzen du.

67. Andoainera mendiz eta bidean galduta (BRB-005/020)

Anaia eta biak Andoaingo San Esteban baselizako festara joan ziren batean gertatutakoa kontatzen du.

68. Herniora joandako batean izandako abenturak (BRB-005/022)

Bi anaiak elkarrekin ibiltzen ziren eta inguruko beste bi edo hirurekin juntatzen ziren. Behin Herniora joan ziren mendira. Handik Andazarratera jaitsi ziren eta borda batean bazkaldu zuten. Gero Asteasura, Villabonara, Tolosara eta, handik, Berrobira, dena oinez.

69. Mendira joateko nola janzen ziren (BRB-005/023)

Mendira joateko zapatila zuriak erabiltzen zituzten, azpian goma zutenak. Abarkak hobeak izan arren, itsusiagoak ziren. Jantzi berriz, galtzak, alkandora eta jertsea bizkarrean. Simonek ez zuen txapelik ibiltzen gaztetan. Txapela eramateak baserritarraren irudia ematen zuen.

70. Anaia nola salatu zuten (BRB-005/026)

Anaia beldurragatik sartu zen erreketen. Abertzaleak hil egiten zituztela esaten zuten eta horregatik erreketekin boluntario sartu zen. Gerran hil zen anaia, berriz, gerra hasieran lehengusuen etxean zegoen lanean eta ezin izan zuen etxera itzuli. Berrobiko emakume batek anaiari zita eman zion, gorrietan ibiliko zelakoan. Inbidia handia zegoen.

71. Maistraren laguntzaile eskolan (BRB-005/027)

10-11 urte zituzten ume asko Berrobitik Tolosara joaten ziren ikastera. Lorenzo pobrea zen eta ezin izan zuen joan. Maistrak laguntza eskatzen zion eskola martxan jartzeko eta horrekin aspertu egin zen eta eskola utzi egin zuen.

72. Inguruko herrietako euskara (BRB-005/029)

Berrobi, Belauntza eta Leaburun berdintsu hitz egiten da. Ibarran pixka bat aldatzen da. Leitza aldean desberdina da. Tolosan ez da asko aldatzen, Ordizian berriz bai.

73. Etxez aldatu (BRB-006/002)

Juanitaren aitak Elduaian paper-lantegian egiten zuen lan, eta Berrobitik lantegi ondoko etxe batera joan zen bizitzera familia. Hala ere, Juanita Berrobiko lagunekin ibiltzen zen.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com